



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Mikel Gereka Zelaia
José María Alzuri Vertiz
José María Alzuri Vertiz
Francisco Javier Bereau Miquelarena
Carmelo Ayoroa Hualde

2015eko uztailearen 24an, 11:00etan, Aparteko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. BASO-LANAK 2015.

2015eko uztailearen 13ko Osoko Bilkuran onetsi ziren funtsezko baldintzak, “2015eko KANPAINAN ITURENGO U.B.an BURUTU BEHAR DIREN BASO LANEN PROIEKTUA” izeneko agirian dauden lanak kontratatzeko, komunitate-publizitaterik gabeko prozedura negoziatua jarraituz. Lanen aurrekontua 11.123,24 eurokoa da (gehi BEZa). Proposamenak aurkeztera gonbidatuak izan ziren 4 enpresetatik, 2 hauek aurkeztu dituzte: Sasoi Erikuntzak SL eta Excavaciones Mikel Ubiria SL.

Aurkeztu diren proposamenak ireki ditu idazkariak. Agirien kartazalak ongi daudela ikusirik, bi enpresak onartuak izan dira. Jarraian, proposamen ekonomikoak ireki dira eta hau izan da emaitza:

- Excavaciones Mikel Ubiria SLk, 10.622,69 euroko eskaintza egin du (gehi BEZa).
- Sasoi Eraikuntzak SLk, 10.872,97 euroko eskaintza egin du (gehi BEZa).

Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 74. artikuak xedatzen duena kontutan hartuz, aho batez erabaki da:

1. “2015eko KANPAINAN ITURENGO U.B.an BURUTU BEHAR DIREN BASO LANEN PROIEKTUA” izeneko agirian dauden lanak esleitzea EXCAVACIONES MIKEL UBIRIA SL enpresari, B 31 738131 IFK, hamar mila sei ehun eta hogeita bi euro eta hirurogei eta bederatzi zentimotan (10.622,69 €), gehi BEZa. Lanak, hilabete bateko epean bukatu beharko ditu, hasiera-aktako datatik hasita. Dena ere, lanak bukatuak egon beharko dute irailaren 15a baino lehen.

2. Kontratoa sinatzeko ahalmena ematea alkateari.

3. Martín Mindeguia Ochandorena izendatzea obrako zuzendari teknikoa eta obrako segurtasun eta osasuneko koordinatzailea.

4. Erabaki hau jakinaratzea esleipendunari, eskaintzak aurkeztu dituzten enpresei eta obrako zuzendariari.

Eta bertzerik ezean, 11:15ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.